KOOPERAROCK Kooperazioaren artea

# Memoria bateratua

| | |
|---|---|
| **Erakundea:** | LANKI Ikertegia, HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea |
| **Proiektuaren izena:** | *Kooperarock. Kooperazioaren artea* |
| **Txostenaren data:** | 2017.03.13 |
| **Zenbagarren txostena:** | Azken txostena |
| **Arduraduna:** | Maider Iriarte Legardon<br>miriarte@mondragon.edu<br>Tel.:637 380048 |

## SARRERA

Orriotan aurkezten dugu DSS2016 egitamosaren baitako 'Kooperarock: kooperazioaren artea' proiektuaren azken memoria bateratua. Bi fase osagarri izan ditu Kooperarock proiektuak:

| KOOPERAROCK 1 | KOOPERAROCK 2 |
|---|---|
| **Epea:** 2016ko urtarrila-uztaila | **Epea:** 2016ko ekaina-abendua |
| **Helburua**: ezagutza kooperatiboaren garapen eta zabalkundea gizarte ekonomiaren alorrean | **Helburua:** izaera artistikodun prozesu kooperatiboen garapena hezkuntza eremuan |
| **Arduraduna:** LANKI Ikertegia, Mondragon Uniberstitatea | **Arduraduna:** Teatro Paraíso Antzerkia. |
| **Eragile inplikatuak**: GEZKI, MIK, REAS, OLATU KOOP, Arizmendi Ikastola | **Eragile inplikatuak:** Arizmendi Ikastola; Iparraldeko, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako 4 ikastola; irakasleak eta alor ezberdinetako artistak. |

Txosten honetan fase bakoitzak izan dituen ekintzen deskribapen zehatza jasotzen da.

# KOOPERAROCK 1
# LANKI Ikertegiko ekintzen memoria

## I. PROIEKTUAREN LABURPENA (onartutako dokumentuan idatzi bezala)

*KooperaRock* proiektuak kooperatibagintza du ardatz, kontzeptuaren izaera zabal eta sakonean. Izan ere, lana eta ekonomia ulertzera mugatu baino, bizitzako esparru orotara hedatzen bait da kooperatibagintza eta bere oinarrian dauden balioak: harremanak, garapen soziala, herri mugimenduak, herrigintza, eraldaketa, hezkuntza.

Horregatik, proiektu honek eguneroko bizitzan eta jendartearengan eragin zuzena duten hainbat alderdi landuko ditu. Alderdiok, gainera, eragile anitz eta herritarrei zabalduko zaizkie, modu partehartzailean, jardunaldi, bideoforum, topaketa, elkartruke, komunikabide libre, sare sozial eta beste hainbat bide eta ekintzaren bitartez.

Horrela, kooperatibagintzaren lau zutabe esanguratsuenak (hezkuntza, lana, eraldaketa soziala eta elkartasuna) izango dira abiapuntu eta hauen inguruan aldez aurretik finkatutako galderak berriz hausnarketarako bide, eragileen parte-hartzea eta interakzioa bera prozesuaren emaitzetako bat izango delarik.

Proiektuaren izaerak eta planteamenduak kooperatibagintzaren filosofia eta moldeekin bat egiteko bokazioa dauka. Edukien lanketa, ikerketa, hausnarketa kolektiboa, belaunaldien arteko elkartrukea genero begiradatik, eztabaida kritikoa, komunikabideetan egingo den errelato jarraia edota Donostiako hirian utzi nahi den legado fisikoa… guztiek gorpuztuko dute proiektua, eragile, erakunde, langile eta herritarren elkarpuntu bilakatuz.

Kooperarock, Euskal Herriko herri eta hirietan barrena hilabeteetan gorpuztuko den prozesu eraldatzaile eta partehartzailea izango da, bere ibilbidean honako ezaugarriak izango dituelarik:

- **Kooperatibigintza edukinetan, baita formetan ere:** Proiektuak uztartuko dituen eragileak, euren egunerokotasunean, lan eta erlazio eredu alternatiboak jorratzen eta suspertzen ari dira. Horregatik, proiektuak ere, kooperatibigintza eta ekonomia solidarioaren oinarri eta dinamikak bultzatu nahi ditu, ez bakarrik edukinetan, baita lana pentsatu eta egiteko orduan ere. Horrela, iraunkortasuna, errekurtsoen erabilera zentzuduna, partaidetza, aniztasuna, generoa eta elkartasuna besteak beste, aztertuko diren gaiak izateaz gain, proiektuaren metodologia, errelato eta kudeaketaren egunerokoan izango dira ere.
- **Daudenak indartu, berriak sortu ezik:** Aurrekoaren ildo beretik, errekurtsoen erabilera zentzuduna egin eta eragileen autoeraketa errespetatzeko, eragile horiek aldez aurretik identifikatu dituzten beharrei erantzuna ematea izango du helburu nagusi proiektuak. Proiektua amaitzean ere, prozesuek aurrera jarraituko dutela ziurtatuz.
- **Iraunkortasuna:** Ekintza guztiak proiektuaren bizipenetik harat pentsatuak eta sortuak izango dira, proiektuaren babes tekniko eta diruak bukatzean, biziko direla zainduz.
- **Genero ikuspegia:** Kooperatibigintzan ere, arlo produktiboan gertatu ohi den bezala, gizonezkoek izan dute protagonismorik handiena, emakumeak bigarren maila batetan gelditus. Gauzak horrela, proiektuak ahalegin bereizia egingo du, emakumeen, lehengokoen eta oraingoen, lan eta ekarpenak azaleratu eta

gizarteratzeko.

- **Prozesu kognitiboetatik, emozioetara:** Hitzetan eta eztabaidan oinarritutako hausnarketa prozesu ohikoez gain, proiektuak prozesu kreatibo eta plastikoagoak bultzatuko ditu, eragileek euren bizipen eta ikuspuntuak, buruarekin ez ezik, emozioetatik ere partekatzeko parada izan dezaten, prozesua aberaztuz.
- **Hizkuntza:** Hizkuntzaren tratamendua da prozesuaren garapenean zein sortzaileen lanean kontutan izan beharreko beste alderdi bat. Izan ere, proiektuaren gaiak berak eskatzen bait du euskal kulturari (eta beraz, euskarari) leku zentrala ematea. Horregatik, prozesuko jarduerak eta ikuskizuna euskaraz izatea lehentsiko da, tarteka gaztelera ere erabiliko delarik.

## II. PROIEKTUAREN JARRAIPENA

### 1. Proiektuaren garapenaren deskribapen laburra

LANKI Ikertegiak garatu duen Kooperarocken lehen epearen amaieran, proiektuak erakunde eta eragile anitzen elkarlana gaitu duela esan dezakegu, proiektuaren amaieratik haratago garatuko diren prozesuak martxan jarriz. Eragile eta erritmo ezberdinekin lan egitea erronka izan bada ere, orokorrean, zailtasun handiegirik gabe bideratu dira ekintzak, egindako urratsik aipagarrienak honakoak direlarik:

- Hiru unibertsitateen arteko elkarlana bultzatuko duten bi mugarri ezarri dira aurrerantzerako: metodologia kooperatiboak landuko dira mintegi batetan eta ikerketa ildoak partekatzeko bilera bat ospatuko dute hiru unibertsitateetako ikertegiek 2017 urtean
- Belaunaldiek kooperatibagintzaren inguruan dituzten ikuspuntu anitzak eta emakumezkoen bizipenak bildu eta plazaratu dira dokumental batetan.
- OLATUKOOP, REAS eta LANKIk, ekintzailetasun soziala bultzatuko duen sare iraunkorraren norabidean aurrera pausu garrantzitsuak eman dituzte proiektuari esker, orain arte Debagoienan zegoen *Berrekin.Berregin* proiektua, Hernani eta Oreretakoekin saretuz eta kooperatuz.
- Mondragon Unibertsitateak Maiatzaren 5ean *"Kooperatiben kudeaketarako gakoak: Arrasateko esperientzia"* MOOCaren bigarren edizioa martxan jarri zuen proiektuaren baitan. Guztira, 26 herrialde ezberdinetako 506 lagunek parte hartu zuten.
- LANKI Ikertegiak bosgarren urtez Topaketak ospatu zituen ekainaren 10ean, kooperatibagintza eta eraldaketa sozialaren inguruan lanean ari diren eragile ezberdinak bilduz.
- ARROSA eta ARGIA komunikabideekin batera egindako lanari esker, kooperatibagintza, ekonomia sozial eta solidarioa eta Kooperarock proiektuaren baitan egindako ekintzak zabaldu dira, beste ekonomia eta bizitzeko eredu batzuk azaleratuz.
- Teatro Paraisorekin elkarlana egin da lehen epe honetan, ekintza ezberdinetan sortutakoak partekatuz, Arizmendi Ikastolarekin zubilanak eginez, formakuntza kooperatibo jardunaldiak bideratuz eta ARGIAko bloga euren eskuz utziz, besteak beste.

**2. Ekintzen deskribapen eguneratua**

1. LANA ETA HEZKUNTZA

**1.1.E Jardunaldiak**

**Eragileak: EHU-**GEZKI, **MU**-LANKI eta MIK, **Deustu**-IEC

**Helburua:** EHU, DEUSTU eta MUko empresaritza ikasleen arteko hausnarketa sustatu eta euren beharrak erantzuten dituzten kooperatibigintzaren inguruko material pedagogikoak diseinatzea.

**Gaia:** *Pertsonen garapen integrala, hezkuntzaren berrikuntzaren beharra eta praktika onak. Noiz eta nola egiten da pertsona kooperatibo?*

**Deskribapena:** Hiru unibertsitateetako ikasleekin hausnarketa prozesu berdina bultzatuko da era independientean. Horretarako, LANKIko lantaldeak metodología partehartzailea diseinatuko du prozesuak dinamizatzeko. Hiru prozesuak bukatzean, bildutako informazioa aztertu egingo da, hiru unibertsitateetako ikasleak bilduko dituen laugarren topaketa baten metodología diseinatzeko. Azken topaketa honetan, hiru unibertsitateetako ikasleek euren pentsakera eta ikusmirak partekatuko dituzte eta baita euren beharrak adierazi ere. Behar hauei erantzuteko, kooperatibismoaren inguruko material didaktikoak sortuko dira.

**Egindako urratsak:**

EHU-n ETA MU-n HAUSNARKETA JARDUNALDIAK: *Nola egiten da pertsona kooperatibo?*

**SARRERA MODUAN**

Azken urteetan EHUk, Deustok eta MUk beraien ikertegiak diren GEZKI, IEC, MIK eta LANKIren bitartez egindako kooperatibigintzaren inguruko elkarlanaren ildotik, DSS2016ren *Kooperarock. Kooperazioaren artea* proiektuaren baitan hiru unibertsitateen arteko elkartrukea bultzatu da, hainbat ekintza akademikoren bitartez.

Txosten honek, maiatzaren 19 eta 20ean Euskal Herriko Unibertsiatetean (EHU) lehenik eta Mondragon Unibertsitatean (MU) ondoren burutu ziren kooperatibagintzaren inguruko hausnarketa jardunaldietan bildutako iritzi eta ikuspuntuak biltzen ditu, 2016ko udazkenean ospatuko diren unibertsitateen arteko jardunaldi bateratuetarako abiapuntu izango dena ere.




## GAIA

*Kooperatibagintza, eraldaketa soziala, pertsonen garapen integrala eta hezkuntzaren berrikuntzaren beharra. Zein hezkuntza eredu behar dira sujeto kooperatiboak sortzeko?*

## HELBURUA

Kooperatibagintza eta eraldaketa sozialaren inguruan eztabaida sustatzea, gizarte berri baten eraikuntzan hezkuntzaren eta unibertsitatearen errola zein izan beharko lukeen hausnartzeko.

## METODOLOGIA

Kooperarock proiektuaren helburuei jarraituz, bi ordu t'erdiz luzatu ziren bi saioetan, metodologia partehartzaile eta kolaboratiboak erabili genituen, metaplanean oinarritutakoak.

## PARTAIDEAK

**Donostian ospatutako lehen saioan:** GEZKIko kide eta EHUko Ekonomia Solidarioko Masterreko ikasle eta irakasleak (21 lagun).

| | |
|---|---|
| **Kopuru osoa** | 21 |
| **Emakumenzkoak** | %60 |
| **Adintartea** | |
| 25-39 urte | 17 |
| 40-64 urte | 4 |
| 65 urtetik gora | |

**Oñatin ospatutako bigarren saioan:** MIKeko partaideak, empresaritza eskolako ikasle eta irakasleak (16 lagun).

| **Kopuru osoa** | 16 |
|---|---|
| **Emakumenzkoak** | %80 |
| **Adintartea** | |
| 25-39 urte | 12 |
| 40-64 urte | 4 |
| 65 urtetik gora | |

**EGITURA**

| **Ekintza** | **Helburua** | **Metodologia** |
|---|---|---|
| Ongi etorria | Saioari hasera ematea | Ahozkoa |
| Espektatiben harresia | Partehartzaileek zer espero duten jakitea | Metaplana |
| Agenda | Saioak izango duen egitura azaltzea | Metaplana |
| Aurkezpena: Sujeto Kooperatiboa eta eraldaketa soziala | Kooperatibagintzaren hastapenak abiapuntutzat hartuz, gaur egun sujeto kooperatiboa nola ulertzen dugun aztertu eta sujeto kooperatiboak sortzeko hezkuntzak duen garrantzia azaleratu. | Espositiboa<br>Power Point<br>Bideoak |
| Taldeko lana: *Nolako unibertsitate eredua sustatu behar da?* | Eraldaketa soziala eta sujeto kooperatiboak sortzen dituen hezkuntza eredu batek izan beharko lituzkeen ezaugarriak biltzea | Metaplana |
| Taldeko lana: *Zeintzuk izango lirateke hezkuntza eredu berri horretarako urratsak?* | Aurreko galdera abiapuntutzat hartuz, hezkuntzak sujeto kooperatiboen gauzatzean egin ditzakeen ekarpen konkretuak biltzea | Metaplana |
| Sintesia | Partaideek aurkeztutako proposamenen laburpen eta sintesia | Ahozkoa |

**EMAITZAK**

GALDERA: *Nolako unibertsitate eredua sustatu behar da?*

| GEZKI (EHU)-ko partehartzaileen erantzunak | MIK (MU)-ko partehartzaileen erantzunak |
|---|---|
| **Aurrebaldintzak:**<br>Berdintasun aukera berdinak<br>Demokratizatu, politizatu,partehartu<br>Pertehartzailea<br>Publikoa<br>Komunitarioa eta integrala<br><br>**Pentsatzeko era berriak sortu:**<br>Ez bakarrik konpetitiboa<br>Giza baloreak indartu<br>Balore hezkuntza sustatu<br>Goxatuz ikastea<br>Belaunaldien arteko ikasteko erak bultzatu<br>Balore aplikatuak<br>Desmerkantilizazioa<br>Anitza eta aberatsa<br>Aniztasun inklusiboa defendatzen duena<br>Aniztasuna era baikorrean sustatu<br><br>**Ekiteko era berriak:**<br>Eraldaketa sozialerako estrategia sortu<br>Pentsamendu kritikoa sustatu<br>Kontzientzia kritikoa | **Komunitateari lotuta:**<br>Gizartearen beharrei erantzun<br>Gizarteko eragile ezberdinen artean komunikazioa bideak ireki<br>Unibertsitate-komunitate erlazioa sustatu<br>Gizarteari lotuta<br>Erakundeekin erlazionatuta<br>Gizartearen arazoak gureganatu<br>Unibertsitatea gizartera zabaldu: herria, beste errealitate batzuk (internazionalak)<br><br>**Ikusmira berriak:**<br>Berritzailea<br>Kooperatiboa<br>Norberaren garapena<br>Etengabeko prestakuntza sustatu<br>Ikasle-irakasle inplikazioa<br>Jarrerak eta elkarlana<br>Teoria eta praktika uztartu<br>Glokala<br>Bidaiak, sare sozialak, trukeak |

GALDERA: *Zeintzuk izango lirateke hezkuntza eredu berri horretarako urratsak?*

| GEZKI (EHU)-ko partehartzaileen erantzunak | MIK (MU)-ko partehartzaileen erantzunak |
|---|---|
| **Partehartze irekia:**<br>Ebaluaketa integralak<br>Beharretara egokitzen dena<br>Beharren diagnosi integrala egitea<br>Ekintzaile guztien partehartzea sustatzea<br>Horizontaltasuna<br><br>**Hezkuntza berpentsatzea:**<br>Elkarturkeak sustatzea<br>Dinamika partehartzaileak | **Lan munduari begira:**<br>Lan munduarekin harremana sustatu<br>Praktikak enpresatan<br>Empresak bisitatu edo hizlariak ekarri<br><br>**Harreman berritzaileak:**<br>Ikasle-irakasleen arteko harreman gertukoak<br>Konfidantza giroa sortu klasean<br>Ikasleen partehartzea sustatu<br>Ikasleen protagonismoa sustatu |

| **GEZKI (EHU)-ko partehartzaileen erantzunak** | **MIK (MU)-ko partehartzaileen erantzunak** |
|---|---|
| Hezkuntza helburu berriak<br>Pentsamendu kritikoa sustatu<br>Konpententzia eta baloreen errebisioa<br>Hezkuntza eta aisialdia berpentsatu<br>Lan produktibo-erreproduktiboen berdintzea<br>Lan munduarekiko kritikotasuna<br>Emozioa, ilusioa, bizipoza<br><br>**Egitura berriak sortzea:**<br>Ondo informatutako gizartea<br>Ongizate eta elkartasuna<br>Borondate politikoa<br>Publikotasuna | Dinamika aktiboak jorratu<br>Hezkuntza-eredu partehartzaileak<br>Elkarlana sustatu<br>Talde txikiak eta orekatuak<br>Ikaslearen ebaluazio jarraia<br>Azterketak bai/ez eztabaiada |

## HAUSNARKETA SORTA BAT

Bi unibertsitateetan **partehartzaileagoak** diren **hezkuntza eredu berrien beharra** azpimarratzen da, ikasle-irakasleen arteko **trukea** suspertu eta **aniztasuna** barneratuko dituztenak.

**MUn** aldaketa horiek bideratu ahal izateko unibertsitatea komunitatera gerturatu eta bere beharrak zeintzuk diren ezagutzea proposatzen da, **enpresa munduari berebiziko garrantzia emanez gizartearen baitan**. Ildo honetatik, **unibertsitatea lan mundura egokitu behar dela** propostatzen da, hezkuntza lan mundura begira jarriz, praktikak enpresatan bideratuz edota enpresekin elkartrukea sustatuz.

**EHUn** aldiz, **begirada publikotasunean** pausatzen da eta egungo gizartearen egiturek jasan behar dituzten aldaketa sakonak aipatzen dira, hala nola, **demokratizazioa, aukera berdinak bermatzea (lan produktibo-erreproduktiboen berdintzea), partehartzea sustatzea eta komunitateari begira jartzea.**

Bi taldeak bat datoz **unibertsitatearen baitan egitura eta harreman era berriak sortzeko beharra** dagoela esatean, nahiz eta behar hauek era ezberdinean irudikatzen diren: **MUn** unibertsitatearen **zeregin eta eraginak unibertsitatearen baitara mugatzen** diren bitartean (ikasle-irakasle harremanak aipatzen dira, konfidantza giroa sortzea klasean, talde txikiekin lan egitea, azterketak bai/ez erabiltzea...), **EHUn** unibertsitatearen eragin esparrua hezkuntzatik harat ezartzen dute eta gizartearen baitan **pentsamolde eta egitura berriak sortzeko unibertsitateak duen erantzunkizun eta eraginkortasuna** azpimarratzen da.

BALIABIDEAK:

- Berria OVESeko Aldizkarian: http://www.oves-geeb.com/eu/noticias-eu/detalle-eu/disziplinarteko-kooperarock-jardunaldia-749
- Jardunaldien bideoa: https://ehubox.ehu.eus/index.php/s/2LeaUSJRrk7tBXg

## HIRU UNIBERTSITATEETAKO HAUSNARKETA BATERATUA: Kooperatibagintza hezkuntzan indartzeko bide berriak zabaltzen



**SARRERA MODUAN**

Txosten honek, irailaren 23an EHUn ospatu zen jardunaldian landutako gaiak eta adostutako jarraipen ekintzak biltzen ditu, maiatzean EHUn eta MUn ospatu ziren lehen hausnarketak abiapuntutzat hartuz (ikus aurreko deskribapena).

**GAIA**

*Kooperatibagintza, eraldaketa soziala, pertsonen garapen integrala eta hezkuntzaren berrikuntzaren beharra. Posible al da gure arteko elkarlanean goi hezkuntzan kooperatibagintza indartzea?*

**HELBURUA**

Hiru unibertsitateetako kooperatibagintza ikertegien artean elkarlana bultzatzea jarraipen ekintza zehatzen bitartez.

**METODOLOGIA**

Jardunaldiak bi une izan zituen:

1. BIDEOFORUMA (goizeko 10:30-12:30 bitartean, Zuzenbide Fakultateko Paraninfoan): Zuzenbideko lehen mailako 100 ikaslek ekonomia eredu berrien inguruan hausnartzeko aukera izan zuten "Gure Kabuz ala hil" dokumentalaren arira, LANKI Ikertegiko Formakuntza Kooperatiboan aditu den Aitzol Loyolaren eskutik. Bideoforumaren helburu nagusia ekonomia eredu alternatiboak aurkeztea izan zen, egungo paradigma kapitalistaren ondoan.

2. LANALDIA (eguerdiko 12:30-14:00 bitartean, Carlos Santa Maria Zentroko Sormen Gelan): GEZKI, MIK, IEC eta LANKIko kideek, elkarlanerako bide berriak adostu zituzten kooperatibagintza hezkuntzan indartzeko helburupean.

**PARTAIDEAK**

**Bideoforumean**: Zuzenbideko lehen mailako 76 ekonomia ikasle.

| | |
|---|---|
| **Kopuru osoa** | 76 |
| **Emakumenzkoak** | %70 |
| **Adintartea** | |
| 25-39 urte | 74 |
| 40-64 urte | 2 |
| 65 urtetik gora | |

**Lanaldian**: GEZKIko Aitor, Enekoitz, Ane, Aratz, Mikel eta Jon Ander
MIKeko Saioa, Amaia eta Aitziber
IECko Arantza
LANKIko Aitzol eta Maider

| | |
|---|---|
| **Kopuru osoa** | 12 |
| **Emakumenzkoak** | %50 |
| **Adintartea** | |
| 25-39 urte | 8 |
| 40-64 urte | 4 |
| 65 urtetik gora | |

## EMAITZAK

**GALDERA:** ***Zein da kooperatibagintzaren lekua gure unibertsitateetan?***

| GEZKI (EHU) | IEC (Deusto) |
|---|---|
| *Irakasleak ematen diona<br>*Graduondoan soilik (eskaintza mugatua)<br>*Oso gutxi. Kualitatiboa da, baina kuantitatibotik begiratuta, exkaxa.<br>*Ikerketan<br>*Argitaralpen eta hitzaldietan | *IECn eta Zuzenbide Fakultatean. Empresaritza Fakultatea kontra dago.<br>*Ikerkuntzan (Dirulaguntzak, Gradu Bukaerako Lanak, kanporaka begira egiten den lana...) |
| **MIK (MU)** | **LANKI (MU)** |
| *Gure filosofia da kooperatibagintza. Ikasleekin partekatzen ote dugu?<br>*Kooperatibagintzak leku zentrala du gurean, zeharlerro bilakatu behar dugu<br>*Ikerketetan | *Kooperatiba izateak, zentralidadea ematen dio gaiari gurean<br>*Kooperatibagintza gure jardueraren arrazoia eta muina da |

**GALDERA:** ***Zer egin genezake kooperatibagintza gure unibertsitateetan indartzeko?***

| GEZKI (EHU) | IEC (Deusto) |
|---|---|
| *Curriculum arautuan kooperatibagintza gaiak barneratzen saiatzea, dozentzia berdiseinatuz<br>*Irakasleengan eraginez<br>*Diziplina anitzetan txertatuz<br>*Eskaintza zabaldu eta espazio osagarriak bilatu: praktikak, inkubadora, eragileak unibertsitatera gerturatuz...<br>*Ikusgarritasun handiagoa emanez jendearen jakinmina pizteko | *Unibertsitate eta fakultateen arteko elkarlanaren bitartez eta kooperatibagintza munduko eragileen laguntzaz<br>*Irakasle nahiz ikasleentzako antolatutako mintegien bitartez |
| **MIK (MU)** | **LANKI (MU)** |
| *Kooperatibagintzaren balioak gureganatuz<br>*Kooperatibagintzaren praktikotasuna erakutsiz, beste ereduetatik ezberdintzen duena azaleratuz<br>*Kooperatibagintzaren onurak azaltzea, mahaia teoriko batetaik haratago<br>*Ikuspegi bateratua gure artean adostuz | *Hezkuntzan presentzia handiagoa emanez, bai zuzenean eta baita zeharkakoan ere<br>*Hiru unibertsitateen arteko ikerketa bultzatuz<br>*Gaur bezalako saioekin |

| | |
|---|---|
| *Adibide onak azalduz<br>*Baliabideak partekatuz<br>*Ikasleak motibatuz<br>*Ikerketa lerro berriak irekiz, kooperatibagintzaren balioak eguneratuz | |

**GALDERA:** ***Gure arteko elkarlanak kooperatibagintza indartu al dezake unibertsitateetan?Nola?***

| **GEZKI (EHU)-ko partehartzaileen erantzunak** | **IEC (Deusto)-ko partehartzaileen erantzunak** |
|---|---|
| *Zaila da, egitura zurrunak direlako<br>*Metodologiak partekatzea<br>*Proiektuak elkarlanean burutzea<br>*Pedagogia berriak garatuz<br>*Goizean ikasleekin egindako bideoforuma bezalako saioekin<br>*Ikasleen artean zabaltzea<br>*Gure ekintzetan adibide ona izan, kooperatibagintza eredua zabaltzeko<br>*Lankidetza maila ezberdinetan garatu<br>*Ikerketa partekatuak egin<br>*Egiten duguna elkarrekin partekatzeko guneak eta dinamikak sortuz | *Ikerketa eta irakaskuntza esparruetan egiten ari garena partekatzeko bilerak antolatuz<br>*Gaur bezalako saioen bitartez<br>*Gure unibertsitateetan ospatzen ditugun ekintzetara elkar gonbidatuz |
| **MIK (MU)** | **LANKI (MU)** |
| *Elkarlana bultzatu<br>*Talde berriak sortu lan kooperatiboa bultzatzeko helburupean<br>*Baliabideak partekatu<br>*Ikasleei arra sartuz<br>*Esperientziak eta baliabideak partekatu | *Gaurkoa bezalako saioak sistematizatuz<br>*Sortzen ditugunak partekatuz<br>*Espazioatera elkargonbidatuz, elkarezagutza sustatzeko |

**ADOSTUTAKO HURRENGO URRATSAK**

| **Zer?** | **Noiz?** | **Arduradun** |
|---|---|---|
| GEZKIk antolatzen duen Ekonomia Sozial eta Solidarioko Masterraren testuinguruan, hiru unibertsitateetako ikertegiek euren ikerketa ildoak aurkeztuko dituzte, ikasleek Master eta Gradu Bukaerako Lanetan lan | 2017ko Otsaila | Aitor Bengoetxea, GEZKI<br>aitor.bengoetxea@ehu.es |

| Zer? | Noiz? | Arduradun |
|---|---|---|
| ditzakeen gaiak ezagutzeko helburuarekin. | | |
| Hurrengo urteko Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren proiektuaren baitan, Deustuk jasoko ditu antolakontzu ardurak. Metodologia eta pedagogia eredu berriak lantzeko eskariari erantzuna emango zaio, ikasle nahiz irakasleentzako mintegi bat antolatuz. | 2017 urtean zehar | Arantza Echaniz, IEC aechaniz@deusto.es |
| Kooperatibagintza hezkuntzan indartzeko baliagarria izango den "Kooperatibagintzaren printzipioak" bideoa sortuko da Kooperarock proiektuaren baitan. | 2016ko Abendua | Maider Iriarte, LANKI miriarte@mondragon.edu |

**1.2.E. Belaunaldiak elkarrizketan genero begiradatik**

**Eragileak:** ALE-KOOPERATIBAK-EHU/DEUSTU/MU-ko IKASLEAK

**Helburua:** Lanaren inguruko belaunaldien arteko elkartrukea eta hausnarketak suspertzea genero begiradatik.

**Gaia:** *Zer zen lana eta zer da lana? Zertarako behar dugu lana? Nolakoa? Zer da lana gizon eta emakumeontzat?*

**Deskribapena:** Hiru belaunlditako hiru emakume eta hiru gizon elkartuko dira bi momentu ezberdinetan, egurats informal eta intimoan, euren esprientzia eta bizipenak elkartrukatzeko. Bi topaketa hauek filmatuak izango dira, bideo eta audioak irrati nahiz sare sozialetan erabiliak izateko. Lehen bi topaketa hauen ostean, hiru unibertsitateetako ikasleekin batera, saio orokor bat antolatuko da partehartzaile guztiekin, lana eta generoaren arteko eztabaida suspertzeko. Topaketa honetan, lehen bi saioetan ateratako bideo zatiak erakutsiko dira, ikasle eta langileen arteko elkarrizketa bideratzeko. Prozesuaren amaieran, bizitako esperientzia dokumental batetan jasoko da.

**Egindako urratsak:**

- Prozesuaren metodologia diseinatu da IKOko ikasle eta Tutore Akademikoarekin batera, *Transmedia* eta Eraldaketarako Komunikazioan oinarrituz.

- Hiru belaunaldi ezberdinetako hiru emakume eta hiru gizon identifikatu dira Arizmendiarrieta Lagunen Elkartea eta MONDRAGON Taldearen laguntzaz.



- Bakarkako lehen elkarrizketak grabatu dira sei partaideekin, euren bizipenak ezagutzeko asmoz. Esperientzia hauek kontutan hartuak izan dira hirunakako elkarrizketetako gidoiak sortzerako unean.
- Maiatzaren 11 eta 13an Mondragon Unibertsitateak Aretxabaletan duen Ikusentzunezko Fakultatean (IKO), hiru emakumezkoen eta hiru gizonezkoen elkarrizketak grabatu ziren lantegi zahar batetan. Hiru aulki, mahai bat eta mahaiaren erdian galderez betetako kartoizko kutxa bat izan ziren elkarrizketarako tresnak.
- Guztira, 2 orduko grabazioa jaso da. Ikus-entzunezko Graduko bi ikaslek15 minututako bideoa sortu dute *"Kooperarock: belaunaldien arteko elkarrizketak"* izenburupean.
- Elkarrizketatutako hiru gizon eta hiru emakumeak ondorengoak dira:
    - Irati Mogollon, Soziologa eta Ikerlaria
    - Enea Elorza, FAGOR Automotion-eko Kontseilu Sozialeko Kidea
    - Lurdes Idoiaga, LAGUN AROko kide oiha
    - Xabi Luke, Hirigintza Ingenieroa
    - Lander Diaz de Gereñu, ULMA Packaging-eko Lehendakaria
    - Mikel Lezamiz, MONDRAGON Taldearen Promozio Arduradun Oiha

## PARTAIDETZA

Urriaren 5ean, HUHEZIk Aretxabaletan duen egoitzan mahai inguru bat ospatu zen dokumentaleko partaideekin, bertan landutako gaien inguruan solasteko.

| **Kopuru osoa** | 25 |
|---|---|
| **Emakumenzkoak** | %60 |
| **Adintartea** | |
| 25-39 urte | 10 |
| 40-64 urte | 15 |
| 65 urtetik gora | |

**1.3.E.Bideoforuma: "Gure kabuz ala hil"**

**Eragileak:** GEZKI-MU-IEC

**Helburua:** Hiru unibertsiateetako ikasleen artean ekonomia eredu alternatiboen inguruko ezagutzak eta begirada kritikoa suspertzea.

**Gaia:** *Bideragarriak al dira autoeraketan oinarritutako eta gizakia helburu duten beste eredu ekonomiko batzuk?*

**Deskribapena:** "Gure kabuz ala hil" dokumentala erakutsiko zaie hiru unibertsitateetako ikasleei, ostean, dokumentalaren ekoizle eta protagonistekin batera, ekonomia eredu alternatiboen inguruko eztabailda eta elkartrukea gaitzeko.

**Ekintzaren deskribapena:**

EHU, MU eta Deustuko kideak irailaren 23an jardunaldi bateratuetan elkartu zirenean bideoforum era bateratuan ospatu zen, DSS2016ko zuzendaritzarekin adostu bezala (ikus aurreko deskribapena).

**1.4.E. Arizmendi Ikastolako Topaketak**

**Eragileak:** ARIZMENDI IKASTOLA- LANKI

**Helburua:** Sujeto kooperatiboak eraikitzeko heredu pedagogiko berrien inguruko hausnarketa gaitzea.

**Gaia:** *Nola sortzen da sujeto kooperatiboa 0 eta 18 urte bitartean? Zein heredu pedagogiko dira beharrezko helburu hori lortzeko?*

**Deskribapena:** Azken hamarkadan Arizmendi Ikastola Kooperatibak Leintzeko Bailaran Haur Hezkuntzan martxan jarri duen heredu pedagogiko berriaren ildotik, hausnarketa bultzatuko da topaketa huetan, sujeto kooperatiboaren eraikuntza 18 urte bitartera eraman ahal izateko.

**Egindako urratsak:**

- Arizmendi Ikastolako Zuzendaritzarekin lan bilerak ospatu dira prozesua bideratzeko.
- Arizmendiko Zuzendaritza Taldea eta Teatro Paraisoren arteko bilera ospatu zen apirilaren 25ean bi erakundeen arteko elkarlana eta elkartrukea suspertzeko mediazio pedagogikoaren inguruan.
- Topaketak azkenean ez dira 2016ren baitan ospatuko, baina Konfidantzaren Pedagogia proiektuan barneratua izan da Lankik Arizmendi eta Teatro Paraisoren artean egindako zubilanei esker.
- Proiektuaren lehen epean bildutako ekarpenak Teatro Paraisoko lantaldearekin partekatu dira.
- Irailaren 7an formakuntza saio bat bideratu zen HUHEZIn Teatro Paraisoko bitartekari pedagogikoak eta Arizmendiko arduradunak bilduz.



2. ELKARTASUNA-ERALDAKETA SOZIALA

**<u>2.1.E. Enprendimendu alternatiboaren sarearen sorkuntza</u>**

**Eragileak:** OLATUKOOP-REAS-LANKI

**Helburua:** Ekintzaileetasun soziala bultzatuko duen elkartasun sare iraunkorra sortzea, ekonomia alternatiboaren inguruko masa kritikoa haziz, proiektu berriak sortu nahi dituztenentzat erreferentzia poloa izango dena.

**Gaia:** *Nolako gizartea sortu nahi dugu gure seme-alabentzat? Zein da elkartasunaren betebeharra sortu nahi dugun gizarte berri horretan eta nola pizten da?*

**Deskribapena:** OLATUKOOP, REAS eta LANKIk ekintzaileetasun sozialaren inguruko trukea eta hausnarketa bultzatuko dituzte eragile ezberdinen artean topaketa, bilera eta mahai inguruen bitartez. Prozesua, aditu baten partehartzea izango duen ekintza publiko batekin amaituko da, prozesuaren ondorio nagusiak herritarrekin partekatzeko.

**Egindako urratsak:**

- LANKI, OLATUKOOP eta REAS-en arteko elkarlana bideratu da, Debagoiena, Oarsoaldea eta Hernanialdean ekintzaileetasun soziala bultzatuko duen sare koordinatu bat sortzeko helburuarekin, egun LANKIk Bergarako Udalarekin batera bideratu duen "Berrekin" ekintzaileetasun sozial programa eta OLATUKOOP Hernanikoarekin garatzen ari den "Kooperatzen" programak abiapuntutzat hartuz.
